

LEMOATX TRAIL 2016 ARAUDIA

1. EGUNA ETA LEKUA: LEMOATX TRAIL 2016, 2016eko azaroaren 19an ospatuko da. Mendi martxa goizeko 9:00etan hasiko da, eta mendi lasterketa 10:30etan. Irteera eta helmuga Lemoako kiroldegian izango dira da.

2. IBILBIDEA: Bai mendi martxak bai mendi lasterketak 16,5 kilometroko ibilbidea izango dute, 800 metroko desnibel positiboagaz.

3. PARTE HARTZEA: Araudi honek dioena betez gero, 14 urtetik gorako kirolari orok parte hartu ahal izango du, federatua izan edo ez, mendi lasterketari dagokionez. Federatuek federatu karneta erakutsi beharko dabe dortsala jasotzerakoan.

OHAR GARRANTZITSUA: 14-18 URTE BITARTEKOEK GURASOEN BAIMENA IDATZIZ EKARRI BEHARKO DABE.

Idatzian honako datuak ageri beharko dira:

- Parte hartzailearen izen abizenak eta NAN.
- Guraso edo tutorearen izen abizenak, NAN, eta lasterketa honetarako partehartzaileari ematen dion baimena (sinatuta).

Mendi martxari dagokionez, umeez guraso edo zaindarieskaz joan beharko lukete.

4. KATEGORIAK:

- Kategoria bakarra dago, absolutua.
- Lemoarrek salikapen berezia izango dabe.

5. SARIAK:

Absolutua, gizonak eta emakumeak

1. -garaikurra
2. -garaikurra
3. -garaikurra

Lemoarrak, gizonak eta emakumeak

1. garaikurra

Oharra: lemoarren sailkapenean parte hartzeko Lemoako herrian erroldaturik egon beharko da lasterketaren egunean.

Sari banaketa 13:15etan izango da Eskoletako aterpean.

Horrezgain, partehartzaile guztiek buff bat jasoko dabe opari lez. Era berean, laguntzaile den 4 TRAIL RUNNINGen eskutik, zenbait produktuen zozketa egingo da partehartzaileen artean.

6. IZEN-EMATEA:

•Mendi lasterketa

-Federatuak: -Aurretik (www.kirolprobak.com), 8€.

-Egun berean 10€.

-Ez federatuak: 15€, webgunean zein egun berean.

•Mendi martxa

Egun berean, 5 €.

7. SEINALEZTAPENA: Ibilbidea probako karteekin, banderatzuekin eta zintekin behar bezala markatuta eta ikusteko moduan egongo da.

8. ANOA GUNEA:

Helmugakoaz gain, anoa gunea bat egongo da.

1.Anoa gunea:5 km likidoa.

2.Anoa gunea:10 km likido eta solidoa.

9. KONTROLAK: Antolatzaileek kontrol-gunea bi jarriko dituzte, eta horietatik pasatzea ezinbestekoa izango da.

Ibilbide Luzean:

1. Kontrol gunea:5 km

2. Kontrol gunea:10 km

10. GEHIENEZKO DENBORA:

Mendi lasterketa: Gehienez 3,5 ordu.

Mendi martxa: Gehinez 5 ordu.

10.1. Lasterketa antolatzaileek edozein kausarengatik (denbora gehiegi, ibilbidetik ez pasa, jarrera desegokia...) korrikalaria probatik kanpo utziko dute.

11. KRONOMETRAJEA: Lasterketaren kronometrajea ordenagailuaren bidez egingen da. Parte-hartzaileek, sailkapenak jarri ondoren, 30 minutu izango dituzte erreklamazioak egiteko. Denbora tarte hori igaro ondoren, erreklamaziorik ez badago, sailkapenak behin betikoak izango dira.

13. DORTSALEN BANAKETA:

Dortsalen banaketa Lemoako Eskoletako Aterpean egingo da., 08:00etatik aurrera eta izen emandako proba baino 20 minutu lehenagorarte.

Derrigorrezkoa izango da NAN-a. eta federatu txartela aurkeztea.

14. INGURUMENA: Lasterketa, Lemoako herritik eta Lemoatx menditik arituko da; ingurua babestea nahitaezkoa izango da eta debekatuta egongo da edozer gauza lurrera botatzea.

14.1. Horretarako zaborra biltzeko tresnak jarriko dira anoa gunera amaiera guztietan. Anoa gunetan, antolatzaileek ezarritako zaborraren sailkapena errespetatzea nahitaezkoa izango da.

14.2. Arau hau hausten duena kanporatua izango da.

15. OSASUN ZERBITZUA: Antolatzaileek larrialditarako osasun zerbitzua jarriko dute : Gurutze Gorriko dotazioak egongo dira mendian eta helmugan.

Halaber, helmugan dutxa, garbiketa eta lehen mailako zerbitzu medikua eskainiko dituzte, horren beharrean aurkitzen diren kirolariarentzat.

16. SEGURTASUNA: Antolatzaileek, egoerak hala eskatuta, lasterketaren ibilbidea aldatzeko eta dagozkion gainerako

aldaketak egiteko eskubidea daukate, eta baita bertan behera uzteko ere, eguraldiaren baldintzek hala eskatzen badute edo arrazoi nagusi batengatik, lasterketa batzordearen adostasunarekin.

17. LAGUNTZA EZBEHARRETAN: Parte-hartzaileek, laguntza beharrean aurkitzen diren parte-hartzaileei laguntzera behartuta daude, eta baita kontroletan gorabeheren berri ematera ere.

18. ERANTZUKIZUNA: Antolatzaileek beren gain hartuko dituzte ibilbidean zehar gertatzen diren istripu guztiak, baina korrikalariaren erruagatik edo utzikeriagatik gertatu bada istripua, antolatzaileek ez dute beren gain hartuko. Parte-hartzaileak euren buruari edo besteei egindako kalte guztien erantzule izango dira.

19. IRUDI ESKUBIDEAK: Partaide orok, antolatzaileei eta beren babesleei, lasterketaren inguruan egindako argazki edo hartutako irudiak askatasun osoz erabili eta argitaratzeko baimena ematen diete epe mugarik gabe.

20. IZEN EMATEAREN KOSTUAREN ITZULERA: ez da dirua bueltan emango.

21. IZEN EMATE BAKOITZEKO 1€ "HEGOAK ASTINDUZ" ERAKUNDEARI EMANGO ZAIO.

22. Araudi honetan jasotzen ez diren gainontzeko kontuen osagarri gisa, BMF-FVM-ko mendi lasterketen arautegia jarraituko da.